



Kontrola, beldurra eragitea, isolatzea: hori ere genero-indarkeria da

SEINALEAK SUMATUZ GERO AURRE EGIN!

900840111



Kontrolatu egiten zaitu edo beldurra eragiten dizu, baldin eta:

- Deika eta deika edo mezuak bidali eta bidali badabil jakiteko non zauden eta zertan ari zaren.
- Zenbat irabazten duzun eta zenbat gastatzen duzun galdezka hasi eta kargu hartzen badizu.
- Mehatxu egiten badizu esanez zure herrira bidaliko zaituela berriz.
- Adiskide, senitarteko, ikasketa edo gustuko dituzun gauzetatik urruntzen bazaitu.
- Zure seme-alaben aurrean barregarri uzten bazaitu.



Eraso egiten dizu, baldin eta:

- Sexu-harremanak izatera behartzen bazaitu, zuk gogorik ez izan arren.
- Zure gauza kuttunak jaurti edo apurtzen baditu.
- Bultza edo jotzen bazaitu, nahiz gero barkamena eskatu.
- Oihu egiten badizu, edo iraindu edo manipulatu.
- Zuk bera utziz gero, bere buruari min egingo diola esanez mehatxatzen bazaitu.



Jakizu:

- Alkohola, drogak edo egun txarra izatea, horiek ez dira inoiz arazoaren oinarri.
- Ez pentsatu berriz ez denik gertatuko; zure bizia eta zure familiarena arriskuan daude.
- Tratu txarra delitua da: salatu.
- Ez zaude bakarrik.



Genero Indarkeriaren Biktimentzat 24orduko/ Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua

- 24 ordutako zerbitzua, doan eta ezkutukoa
- Telefono bidezko arreta psikologikoa.
- Genero-indarkeria pairatzen duten emakumeentzat eta halakoren bat sumatu dutenentzat.
- 51 hizkuntzatan erantzuten dizugu, euskaraz eta gaztelaniaz gain.

900840111

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES**
Dirección de Inmigración